ELGOIBAR

# Larunbatean abiatuko da Euskararen Eguna ospatzeko prestatutako 4 eguneko egitaraua

Abenduaren 3ra bitartean 'Turra turistikoa', gazteentzako lehiaketa, pintxo-bazkaria, erromeria, hitzaldia, ipuin musikatua eta kontzertu bana izango dira herrian

**JABI LEON**

ELGOIBAR. Abenduaren 3an, Euskaren Nazioarteko Eguna da; eta hori ospatzeko lau eguneko egitaraua prestatu dute Elgoibarko Izarra elkarteak eta Udalak, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolaren eta Nagiak Kentzen gazte taldearen laguntzarekin.

Antolatutako programaren helburu nagusia «elgoibartarrok euskararekin gozatzea da, eta baita elgoibartarron euskararekiko sentsibilizazioa areagotzea ere».

Azken batean, hurrengo egunetarako prestatutakoa «euskararen gaia gizarteratzeko beste modu bat ere bada, euskarak ere bere egunaren beharra duela plazaratzeko era bat. Finean, euskaldunok euskaldun izan nahi dugula aldarrikatu nahi dugu», aitortu dute antolatzaileek.

Edonola ere, 2024ko Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko herritar guztien partaidetzari irekitako ekintza ugari izango dira hurrengo egunetan Elgoibarren.

Antolatutako egitaraua abian jartzeko 'Turra turistikoa' egongo da datorren larunbatean Sarai Sagasta historialariaren gidaritzapean (11:30ean, Kalegoen plazan).

Horren ondoren (13:00etan) 2025eko Euskaraldiaren Elgoibarko 'hamaikakoa' aurkeztuko dute Aita Agirre kulturgunean; eta ordubete beranduago pintxo-bazkaria izango da leku berean.

Larunbateko ekitaldiak borobiltzeko 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako 'Elgoibar koloretan' lehiaketa egongo da kulturgunean bertan (16:00etan); eta azkenik, Urrats taldearekin erromeria (20:30etik aurrera Maalako parkean).

**Ipuina, hitzaldia eta kontzertua**

Igandean 'Euskelelea' ipuin musikatuarekin disfrutatzeko aukera izango da Herriko Antzokian. Ikuskizuna 16.30ean hasiko da eta interesatuek dagoeneko eros ditzakete sarrerak (5 eurotan) herrikoantzokia.eus atarian (umeentzako prezioa 3,5 eurokoa da).

Euskararen Eguna ospatzeko antolatutako egitarauak datorren astelehenean izango du jarraipena. Egun horretan, Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiako Onomastika arduradunak, 'Euskal deituren ezaugarriak, historia eta sorrera' hitzaldia eskainiko du (18:30ean, Aita Agirre kulturgunean). Horrekin batera 'Euskal izen-abizenak euskal grafiaz!' kanpainari hasiera emango diote.

Amaitzeko, anari abeslariak 'Giza zarata' diskoa aurkeztuko abenduaren 3an (19:00etan, Herriko Antzokian). Sarrerak herrikoantzokia.eus atariaren bitartez eros daitezke jada, 10 eurotan (3 euro gazte txartela dutenentzat eta 65 urtetik gorakoentzat).

## El calendario para 2025 ya está en la calle

El Ayuntamiento de Elgoibar entregó ayer los premios de los concursos de fotografía y dibujo organizados para elegir las imágenes del calendario local del 2025, protagonizado por el tema de los cuidados. Los calendarios incluyen fotos de Ainhoa Andonegi, Jabi León (3 fotos), José Ramón Cabrera (2), Asier Atorrasagasti, Miren Mujika, Vicente Guinea, Asier Orbea (2), Gurutze Ariznabarreta y José Antonio Moreno (foto para el calendario de bolsillo) y dibujos de Anderson Salinas, Libe Jurado, Libe López, Lara Gurrutxaga, Nikole Zabaleta, Ibai Muruamendiaraz, Zeenat Fatima Masood, Ekaitz Leonardo, Mikel Azkoaga, Marcos Lorenzo, Yasmin Bachiri y Ariane Garate. Los calendarios están disponibles desde hoyen el Servicio de Atención a la Ciudadanía y Aita Agirre Kulturgunea.


ASKASIBAR/UDALA

# Ikastolak bihar aurkeztuko ditu Kilometroak 2025 jaiaren leloa, irudia eta helburuak Maalan

**J. LEON**

ELGOIBAR. Elgoibarko herriak Gipuzkoako Ikastolen aldeko Kilometroak jaia hartuko du datorren urteko urriaren 5ean. Festa ospatzeko denbora asko geratzen da oraindik baina Elgoibar Ikastolako familia dena behar bezala prestatzeko lanean dago 2025eko Kilometroak antolatzeko lekukoa hartu zuen unetik. Hori dela eta, Elgoibar Ikastolak bihar bertan aurkeztuko dio Kilometroak25 ekimena Elgoibarko herriari. Horretarako ekitaldi xumea egingo du Maalako parkean (18:30ean hasita) eta herritar guztiak gonbidatuta daude bertara gerturatzeko.

Elgoibar Ikastolako 2025eko Kilometroen Komunikazio lantaldetik jakinarazi dutenez, ostiral honetarako prestatutako aurkezpen ekitaldia «azkarra izango da; ordu erdi iraungo du asko jota».

**Biharko ekitaldia**

Elgoibar Ikastolak «Kilometroetako irudia eta leloa» aurkeztuko ditu Maalako parkean biharko antolatu duen ekitaldiari hasiera emateko. Hori janzteko ikasle, guraso eta irakasle batzuk «eskolan bertsolaritza orduetan egindako koplak kantatuko dituzte» herritarren aurrean; eta horren ondoren Olatz Astigarraga Castañares, Ikastolako Kontseilu Errektoreko lehendakariordeak, «kilometroei esker landu nahi ditugun helburuak aurkeztuko ditu».

Ostiral honetako ekitaldiari amaiera emateko, Iera Larrañaga Egiguren, Kilometroak25 ekimenaren koordinatzaileak, «ohar praktikoak emango dizkigu eta urte osoan lagun izango dugun erronka dibertigarri batekin bukatuko dugu ekitaldia, denok elkarri eskutik emanda».

SORALUZE

## El sábado hay una paella para ayudar a la familia de un niño del pueblo con problemas

**J. L.**

SORALUZE. La carpa de Plaza Zaharra acogerá este sábado una paella solidaria promovida por el responsable del Batzoki de Soraluze, Gorka Alberdi, con el objetivo de ayudar a la familia de un niño del pueblo con problemas neurológicos.

Organizada con la colaboración de varios ciudadanos y agentes locales, la paella solidaria del sábado se completará con un puesto para la venta de cerveza y el dinero que se recaude con ambas actividades se destinará al aula de Mondragon Unibertsitatea a la que acude el niño de Soraluze junto a otros menores con problemas similares.

La paella solidaria será preparada por los soraluzetarras Oskar Gil e Iker Makinai y las personas interesadas en asistir pueden adquirir los tiques (al precio de 13 euros) en el Batxoki y en Iratxo.

Para ambientar el evento, antes de la comida habrá un concierto de los txistularis locales y después una actuación de DJ APA. Además, se sortearán regalos entre los asistentes.

DEBA

## El enlace de la AP-8 de Itziar en sentido Behobia se cierra esta noche para reparar el firme

**J. L.**

DEBA. La Diputación Foral de Gipuzkoa comunica a la ciudadanía que esta noche se va a proceder a reparar el firme del ramal de entrada y salida del enlace de Itziar (Deba) (pk 54,000) de la AP-8 en sentido Behobia.

Debido a estas obras, tanto el acceso a la autopista desde Itziar como la salida en sentido Behobia estarán cerradas entre las 22.00 horas de hoy y las 06.00 horas de mañana.

Como alternativa, la Diputación territorial recomienda utilizar el enlace de Zestoa.

En cualquier caso, los trabajos previstos no afectarán a los ramales de entrada y salida de Itziar en sentido Bilbao, que permanecerán abiertos con total normalidad.